

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2024 Foru Dekretua maiatzaren 7koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Foru Batzordea sortu eta arautzeari, beren ahalmen juridikoa egikaritzeko

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioak, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2006ko abenduaren 13an New Yorken onetsiak eta Espainiak 2007ko abenduaren 3an berretsiak, ezartzen du edozein desgaitasun duten pertsonen giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak izan behar dituztela. Konbentzioak argitzen du, halaber, nola aplikatu behar zaizkien eskubideak desgaitasuna duten pertsonen, eta identifikatzen du zer arlotan egokitu behar diren ordenamendu juridikoak, desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak eraginkortasunez baliatu ahal izan ditzaten.

Ekainaren 2ko 8/2021 Legea, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko (2021eko irailaren 3an jarri zen indarrean), ezarrita zegoen gure ordenamendu juridikoa aipatutako nazioarteko konbentziara egokitu beharra zegoelako, jarduteko gaitasuna judizialki aldatzeko prozedura erreformatuz eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak betetzeko prozesuekin ordezteaz.

Gaitasunaren aldaketa judiziala ezabatzeak pertsonaren gaitasun juridikoaren kontzepzio berri bat dakar, eta pertsonen duintasuna norberaren autonomiarekin lotzen du, norberaren erabakiak hartzeko askatasuna barne. Hala, ezinbestekoa da desgaitasuna duten pertsona guztiei gaitasun juridikoa aitortzea, herritar guztien baldintza berberetan, bizitzaren alderdi guztietan, bai eta beren gaitasun juridikoa gauzatzeko behar dituzten laguntza neurriak eskuratu ahal izatea ere. Azken finean, desgaitasuna duten pertsonen protagonismoa eman nahi zaie beren nortasunaren garapen askean eta bizitzako alderdi guztiei buruzko erabakiak hartzean, bai eta gizarte inklusiboa eratzean ere. Ildo horretan, beharrezkoa da haien eskubideei eragiten dieten erabakiak hartzeko prozesuetan benetan txertatzeko mekanismoak ezartzea.

8/2021 Legea onetsi aurretik, Foru Gobernu Kontseiluak urriaren 9ko 51/2018 Foru Dekretua onetsi zuen, helduen babes eta defentsa judizialaren foru batzordearen sorrera, osaera eta funtzionamenduari buruzkoa. Legea indarrean jarri ondoren, foru dekretu hori zaharkituta geratu da, eta, beraz, berehala aldatu beharra dago, indarrean dagoen araudira egokitzeko. 8/2021 Legearen helburua da pertsona guztiek eta eremu guztietan beren eskubideak baliatzea eta beren betebeharrak betetzea, kasu bakoitzean beharrezkoak diren laguntzekin gaitasun juridikoa baliatzeko. Batzorde berri horretako kideek beren eskumen arloan kokatu beharko dituzte beren eginkizunak, eta egokitzen dituzten eskuordetuko dituzte; gainera, laguntza neurrien unitatearen laguntza teknikoak izango dute.

Ondorioz, Arabako Foru Aldundiak berriro antolatu behar ditu Arabako Lurralde Historikoaren laguntza tresnak eta 2006ko abenduaren 13ko Nazioarteko Konbentziara egokitu, Laguntzen Foru Batzordea horien guztien arteko funtsezko erakundea izanik.

27/1983 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoko foru organoen arteko harremanen buruzkoa, lurralde historikoen legea) 8.3 artikuluan eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 2/2008 Legeak 41. artikuluan foru aldundiei gizarte zerbitzuen alorrean beren zerbitzuak antolatzeko esleitzen dieten arauzko eskumena baliatuz, foru dekretu honek Helduen Babes eta Defentsa Judizialeko Foru Batzordea berriz ere arautzen du. Foru dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera, Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Foru Batzordea deituko da, bere gaitasun juridikoa gauzatzeko.

Foru dekretu hau izapidetzeko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak jasotako arautze onaren printzipioei jarraitu zaie, zeinak Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onesten dituen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan ere jasota baitaude. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da erregulazio berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienez mugatzen da, hau da, foru legeria eguneratu eta araudi erkide berrira egokitzea. Egiteko, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia ere. Halaber, kontuan hartu dira Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egindako txostenean jasotako oharak.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioa ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, gerta liteke jendaurrean jartzeko izapidetzea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteaturiko arauketak, daukan izaeragatik, ez du eragiten administrazio zama osagarrikerik eta beharrezkoak ez direnik herritarrentzat oro har, ezta baliabide publiko pertsonal eta material espezifikoen kontsumo handiagorik ere.

Sinpletasunaren eta ulergarritasunaren printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan eta hizkera argia eta ulergarria erabiliz idatzi da.

Azkenik, eta kontuak emateari dagokionez, foru dekretu hau ebaluatuko da eta betetze mailaren jarraipena egin ahal izango da urteko araugintza planaren bidez.

Ez denez beharrezkoa dekretu proiektua alde aurretik Arabako Foru Administrazioaren Kontsulta Batzordeari aurkeztea, Gizarte Politiken Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko egunean egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Arabako Lurralde Historikoan Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Foru Batzordea sortzea, une bakoitzean gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen gaitasun juridikoa gauzatzeko, bai eta batzordearen eraketa, osaera eta funtzionamendua arautzea ere.

2. artikulua. Izaera juridikoa eta atxikipena

Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Foru Batzordea, Arabako Lurralde Historikoan bere gaitasun juridikoa gauzatzeko (aurrerantzean, Laguntzen Foru Batzordea), kide anitzeko organo aholku emailea da, nortasun juridikorik gabe, eta gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko Sailari atxikita dago.

Bere helburua eta eginkizunak betetzeko, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntzeko Neurrien foru unitate teknikoaren laguntza izango du, bere gaitasun juridikoa gauzatzeko (aurrerantzean, foru unitate teknikoa).

3. artikulua. Laguntzen Foru Batzordearen eskumenak eta eginkizunak

Batzordeari honako eginkizun/eskumen hauek dagozkie, genero ikuspegia txertatuz bete beharrekoak:

3.1. Oro har.

Batzordearen eskumena da erakunde egokia proposatzea eskumena duten epaitegiei laguntza zuzenean emateko. Horretarako, kasu bakoitzean, Arabako Lurralde Historikoan daudenen artean egokiena den irabazteko xederik gabeko erakundea proposatuko du.

Halakorik ez badago edo aurretik aipatutako ezein erakundek lagundu ezin badu, foru unitate teknikoak gauzatuko du.

3.2. Laguntzak ematen dituzten irabazteko xederik gabeko pertsona juridikoei dagokienez, Laguntzen Foru Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

- Laguntza eginkizuna betetzearen ondoriozko edozein jardueratan aholkularitza eta laguntza ematea.

- Xedapen judizialak agindutako laguntza eginkizunak betetzen direla gainbegiratzea eta, hala badagokio, haren erabakiak berrestea.

3.3. Epaitegiei eta Fiskaltzari dagokienez.

- Foru unitate teknikoak egindako txostenen eta proposamenen berri izatea eta organo judizialei helaraztea, irabazteko xederik gabeko pertsona juridikoei laguntzeko erakunde izanik, izendatzeko, desenkusatzeko edo kentzeko.

- Foru unitate teknikoak egindako txostenak eta proposamenak ezagutzea, helaraztea eta, hala badagokio, berrestea, eta organo judizialei helaraztea, eremu horretan batzordeak dituen eginkizunekin lotutako laguntzen garapenari eta gainerako alderdiei dagokienez.

3.4. Beste eginkizun batzuk.

- Laguntza ereduaren berri izatea eta hari buruzko nahitaezko txostena egitea, eta organo eskudunak onetsi dezan aurkeztea.

- Arabako Lurralde Historikoan gaitasun juridikoa egikaritzean laguntzeko pertsona juridikoen errolda ezartzea eta eguneratzea.

- Beharrezkotzat jotzen denean, irabazteko xederik gabeko pertsona juridikoen sorrera sustatzea, Arabako Lurralde Historikoan laguntza eginkizunak bete ditzaten.

- Irabazteko xederik gabeko erakunde juridikoekin xede horrekin sinatutako lankidetzak hitzarmenei buruzko informazioa jasotzea, erakunde horiek Laguntzen Foru Batzordetik eratorritako laguntzak ematen baitituzte.

Indarrean dagoen araudiak edo laguntzak ezartzen dituen ebazpen judizialak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

3.5. Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

Batzordeari dagokio 8/2021 Legearen zabalkundea planifikatzea, administrazio eta gizarte osoa arlo horretan sentsibilizatzea, eta arlo guztietan prestakuntza nahikoa proposatzea.

3.6. Etika.

Laguntzen erabilera sustatzea printzipio etikoen hauen arabera: pertsonen autonomia eta borondatea errespetatzea.

Esku hartzen duten eragile guztiekin batera, jardunbide egokien eskuliburu bat egin eta onetsiko du, eta ahaleginduko da hura eguneratzen eta konplexutasun etikoa duten kasuak batera konpontzeko espazioak eskainiko ditu.

3.7. Urteko txostena.

Urtero, foru unitate teknikoak foru batzordeari jakinaraziko dio gaitasun juridikoa gauzatzeko zein laguntza eman diren alta urtean, bai eta lehendik daudenak ere.

4. artikulua. Laguntzen Foru Batzordearen osaera

1. Laguntzen Foru Batzordea kide anitzeko organo bat da, gizonen eta emakumeen arteko ordezkaritza orekatuaren printzipioa errespetatzen saiatuko dena, eta honako osaera hau izango du:

Batzordeburua.– Gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen foru diputatua edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordeburuordea.– Gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekidea.– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zuzendari-kudeatzailea edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekidea.– Adinekoen arloko zuzendariorde teknikoa edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekidea.– Desgaitasuna duten pertsonen arloko zuzendariorde teknikoa edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekidea.– Esku-hartze sozialeko arloko zuzendariorde teknikoa edo hark eskuordetutako pertsona.

Idazkaria.– Foru unitate teknikoko koordinatzailea edo hark eskuordetutako pertsona.

2. Batzordeburuordea arduratuko da batzordeburua bere eskumen guztietan ordezkatzeaz, kargua hutsik dagoenean, gaixorik dagoenean edo kanpoan dagoenean.

3. Batzordeko idazkaria izango da foru unitate teknikoko koordinatzailea edo hark eskuordetutako pertsona; hitza izango du, baina botorik ez.

4. Kasu jakin batzuetan, batzordeak bilerarako deia/gonbita egin ahal izango die beren espezializazioagatik edo kaudimen teknikoagatik gai zerrendako gai jakin batzuei buruzko informazioa eta aholkularitza eman dezaketen pertsonari. Pertsona horiek aholkulari gisa bertaratuko dira eta hitza izango dute, baina ez botorik.

5. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak gabeko Bizitzarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 26. artikulua araberako, batzordean emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko, beharrezkoa izanez gero, artikulua honetan jasotako ordezkaritzen izendapenen bidez sustatuko da hori.

5. artikulua. Batzordeburutza

1. Batzordeburuari honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Batzordearen ordezkaritza izatea.
- b) Bilkuretarako deia egitea, horietan buru izatea eta horien garapena bideratzea.
- c) Bilkuren gai zerrenda egitea.
- d) Aktei oniritzia ematea.
- e) Batzordeburu izateari dagozkion gainerako eginkizunak gauzatzea.

2. Batzordeburuari esleitutako gainerako eginkizunei kalterik egin gabe, 3. artikuluan jasotako eginkizunak betetzeko behar diren neurri guztiak hartu ahal izango ditu hark, premiazko arrazoiengatik edo beste arrazoi larri batzuek ezinezkoa denean neurria batzordearen erabakiaren mende jartzea. Egiten den hurrengo bilkuran hartutako neurrien berri emango dio batzordeari.

6. artikulua. Batzordeko idazkaria

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak aipatzen dituen eskumenez gain, batzordeko idazkariak honako eskumen hauek ditu esleituta:

- a) Bilkuren akta egitea.
- b) Batzordeak hartutako erabakien egiaztagiriak egitea, batzordeburuaren ikus-onetsiarekin.
- c) Batzordearen erabakiak jakinaraztea.
- d) Deiak egitea eta txostenak eskatzea.

7. artikulua. Laguntzen Foru Batzordearen funtzionamendua

1. Laguntzen Foru Batzordeak 6 hilean behin egingo du ohiko bilkura, eta ezohiko bilkurak egingo ditu presidentek edo kideen heren batek hala eskatzen badute, eta horretarako, deialdia eta gai ordena gutxienez 48 ordu lehenago bidali beharko dira.

2. Batzordeburuak egingo du bilkuren deialdia, eta, horretarako, azertu beharreko gaien zerrenda eta, azertu, eztabaidatu eta, hala badagokio, bozkatzeak diren proposamen, kontsulta, txosten eta agirien kopia bidaliko dizkie batzordekideei.

Bilera horiek modu presentzialean edo telematikoan egin ahal izango dira.

3. Bileren akta egingo da, eta bertan jasoko dira landutako gaiak, hartutako erabakiak eta aurkeztutako dokumentuak. Adostasunik egon ezean, ordezkari bakoitzak defendatu duen jarrera jasoko da.

4. Foru dekretu honetan jasotzen ez den guztirako, Laguntzen Foru Batzordearen funtzionamendua sektore publikoaren araubide juridikoa arautzen duen oinarrizko araudian kide anitzeko organoentzat xedatutakoaren arabera izango da (gaur egun, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea).

8. artikulua. Laguntzak

Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza, epaitegiak hala esleitzen duenean, Arabako Lurralde Historikoan une bakoitzean egokiak diren pertsona juridiko publiko edo pribatuek emango dute.

Laguntza neurriek foru administrazioaren aldetik pertsona baten ordezkariak eskatzen dutenean, ordezkariak hori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen zuzendariak izango du. Ez badago, hutsik badago, gaixorik badago edo interes gatazkarik badago, pertsona horren ordezkari unitate teknikoak kokatuta dagoen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko arloko zuzendariordetza teknikoko lanpostua duenak jardungo du.

9. artikulua. Sostenguko laguntza

Batzordeak, bere eginkizunak betetzean, foru administrazio osoaren laguntza eskatu ahal izango du.

Foru unitate teknikoak izango du modu iraunkorrean, eta hura arduratuko da Laguntzen Foru Batzordeak adierazten dizkion alderdi administratibo eta operatibo guztiak gauzatzeari.

10. artikulua. Batzordea osatzen duten pertsonen agintaldia

1. Laguntzen Foru Batzordeko kide bakoitzaren agintaldiaren iraupena ordezkariak duten erakundeko agintaldien iraupen berekoa izango da.

2. Batzordeko kide bakoitzaren agintaldia amaitu ahal izango da karguaren iraunaldia amaitu baino lehen, honako kasu hauetan:

- Izendapena eman zuen administrazio publikoak erabakitako errebokatzea edo kargu uztea.
- Uko egitea, batzordeko lehendakariari aurkeztua.
- Heriotza.

11. artikulua. Batzordea osatzen duten pertsonen eskubideak

Laguntzen Foru Batzordeko kideek honako eskubide hauek dituzte:

a) Hitzaz parte hartzea, botoa emateko eskubidea erabiltzea eta boto partikularra ematea bilkuretan, bai eta botoa zein den eta haren arrazoiak azaltzea ere.

b) Ezohiko batzorde baten deialdia eskatzea.

c) Proposamenak eta iradokizunak aurkeztea gai zerrendan sartzeko, bai eta erabakiak hartzeko edo gai jakin bat aztertzeko ere.

d) Bilkuretarako deiaren eta gai zerrendaren berri izatea aurretik, eta bere esku edukitzea haietan agertzen diren gaien inguruko dokumentuak eta informazioa, baita aurreko bilkuraren akta ere.

e) Galderak eta eskaerak egitea.

12. artikulua. Konfidentzialtasun eta isilpekotasun betebeharra

1. Laguntzen Foru Batzordea osatzen duten pertsonak batzordean bertan ematen zaizkien datuen konfidentzialtasuna bermatuko dute, datuen babesaren eta eskubide digitalen bermearen arloko legeriak kasu horietarako planteatzen dituen eskakizunen arabera.

2. Era berean, batzordeko kideek espedienteen eztabaidei, erabakiei eta edukiei buruzko beharrezko zuhertasuna gorde beharko dute, pertsonen intimitaterako eta ohorerako eskubidea bereziki kontuan hartuta.

3. Batzordeko kideak behartuta daude gaitasun juridikoa gauzatzean laguntza neurriak ditzuten pertsonen ondareari buruzko sekretua gordetzera, eta debekatuta egongo da laguntza behar duten pertsonen ondarearekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten merkataritza eragiketetan parte hartzea.

Xedapen indargabetzailea

Berariaz indargabetuta geratzen da Pertsona Helduen Babes eta Defentsa Judizialaren Foru Batzordearen sorrera, osaera eta funtzionamendua onesten dituen urriaren 9ko 51/2018 Foru Dekretua, bai eta foru dekretu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Azken xedapenak

Lehenengoa. Foru dekretu hau indarrean sartu eta gehienez ere 6 hilabeteko epean eratuko da foru unitate teknikoa Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen baitan.

Bigarrena. Gizarte zerbitzuen arloan eskumena duen foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatu, betearazi eta aplikatzeko behar diren arauak eman ditzan.

Hirugarrena. ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ